

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Sakaila egin

Kaiku deitu eta kaikuak egiteko gaia den urkia (*Betula sp.*) iraintzen dut. Astakilo deituta asto gizagaixoak. Nola arraio izendatu zuhaitz erailak? Hona urtero, udazkeneko neguero, makina bat zuhaitzek pairatu behar duten zigor kriminalaren beste adibide bat. Dotoreziaren izenean zuhaitza jo eta enborreraino soiltzea da bihozgabe krudel hauen inausketa gogoa. Itsusi, itxuragabe mozten dute egurra. Zuhaitz mardula bere lotsaren mailara, eta ezinezkoa bada ere, haien ustez haren beheara, makurtzeko era bakarra egurra ematea dela jakitun. Argazkikoa zume negarti gazte segaila (*Salix Babylonica*), sakaila egina. Hori gutxi eta sarraskia azkarregi egin dutenez zuhaitzak puja berriak bota ditu, hauek ez dira negurako zaildu eta berriberritan ederki erreko ditu hotzak. Kristauen jai okaztagarrienen sasoiaren, aizkoraren epaia eman diona hurbilekoaren torturaz, auzokoaren eskubideetaz, ahaidearen minaz, ondokoaren ezinaz, hurreko gaixoaz, senide zanpatuaz, hurkoaz ariko da, amona Joxepak zioen eran, ahoa neurri! Eta zuhaitz haurridea?

Ogiaren matxinada

OGIAK, lizunaren soineko loredun harroaren usaina baino aurrekoak baditu. Ailisa ez geratzeko hantutzen ari denekoa, labekoa, erre berriarena...

Erre berritan du ogiondoaren, *Artocarpus Altilis* ogiaren arbolaren fruituak ogi itxura eta honen tankerako mamia. Izenak ere argi dio: grezierazko *artos* (ogi) eta *karpas* (fruitu). Ogi-zuhaitza deitu izan da, baina ogi-arbola zuzenagoa izango da, ezta? Ogiondoa beraz... Fruitua ogi handi baten eite eta tamainakoa da, sei kilokoak ere jaso izan dira. Jateko era ugari dago: frijitua, labean errea, ego-sia... Geurean artirinak adina tripa-zorri isilaraziko zituen ogi honek gure antipoda inguruan. Ondo tropikala da ogiondoa: 12°-tik beheara hostaila galtzen du eta izugarritzko ur pila behar du, Euskal Herri hezeenean urtero ditugun 1.500 l/m²-tik gora, alazankua.

Berez malaysiarra da ogiondoa. Bere jaleen adiskide mina izaki, haien migrazioetako txalupetan mundu tropikal guztietara zabaldu da gero: Asiatik Polinesia sakabana, gero Erdialdeko Amerikara, ostean Hegokora, ondoren Karibe osoa, Afrika... Istorio eder askoak eman dituzte bidaiok. Istorio hauek bat da ezagunena, makina bat liburu, film eta kontu erditzea eragin duena.

Ingelesak Jamaikako esklaboei jaten emateko Tahititik ogiondoa ekarri eta landatzea pentsatu eta Hego Amerikari buelta eman go zion ontzi bat pleitatu zuten. Antartida alde hori gogorregi gertatu eta Afrikatik barrena bide luzeenetik joan behar. Halako batean Tahitira iritsi eta landareak ateratzeko hilabeteak sasoi onaren zain. Marinelak bertan gozo, baten bat ezkontzeraino... Buelta-koan matxinatu, kapitaina bere aldekoekin eta landare guztiak uretara bota eta Tahitira bueltatu ziren. Bertan lagunak hartu eta garaiko mapetan gaizki kokatua zeukaten Pitcairn uhartean Utopia deitu kolonia sortu zuten. Gaur egun dituen bederatzi familietako 50 biztanleetako batzuk haien ondorengoak omen dira.

WWW.DOCTORMACRO1.INFO

Jamaikako esklaboentzat ogiondoa zeramaten *Bounty* ontzian.

Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.